

## 2016KO DOKTORETZA-BEKA ESKATZEKO FITXA

ERAKUNDEA	<b>AZTI</b>
Negoio Arloa	Itsasoen eta Kostaldean Ingurumen Kudeaketa
Beka-egonaldia non egingo den Probintzia/Eraikina	Herrera kaia, Portualdea zk.g. - 20110 Pasaia, Gipuzkoa
Tutorea	Ibon Galparsoro

### BEKAREN DESKRIBAPENA

**Izenburua: Itsas plangintza espazialerako tresnak garatzea eta EAEko testuinguruan aplikatzea**

**Bekaren deskribapen laburra:**

Gaur egun, elikagai- eta energia-hornikuntza gizarte-erronka global bat da, eta baliabide horien ezinbesteko iturria da itsas ingurunea. Baina, halaber, jakina da giza jarduerak eragindako ingurumen-presioak ez lirakeela handitu behar, eta itsasoa jatorri duten energia eta elikagaien eta beste behar batzuen gaur egungo eta etorkizuneko hornikuntza bermatzeko modu bakarra dela jarduera jasagarriak egitea, ingurumen-egoera ona bermatuz. Horrez gain, itsas ingurunean jarduerak duten beste muga handietako bat espazio-eskuragarritasuna da.

Doktore-tesi honetan, itsas plangintza espazialean gaur egun erabiltzen diren zenbait tresna eta erabakiak hartzeko modua ebaluatuko dira. Lortutako emaitzen arabera, aztertutako tresnek estaltzen ez dituzten beharrak identifikatuko dira. Horren arabera, lehen azaldutako beharrei erantzun dieten tresna berriak diseinatuko eta garatuko dira, eta EAEko ingurunean aplikatuko dira baliozkotzeko. Tesia egitean, lankidetzaren estua izango da Aquaspace proiektuarekin (Ecosystem Approach to making Space for Sustainable Aquaculture). EBren H2020 Ikerketa eta Berrikuntzarako Esparru Programak finantzatutako proiektu bat da (diru-laguntzaren hitzarmena: 633476). AquaSpace proiektuan, kudeaketa-tresna batzuk ekoizte soiletik harago joan nahi da: akuikultura-sektoreari lagunduko dion hurbilketa ekosistemikoa eta plangintza espaziala eraginkorki ezarri nahi dira.

Doktore-tesi honetan:

- Aztertuko da zer muga dauden eta itsas plangintza espazialeko zer tresna/metodo garatu diren dagoeneko estatuko eta nazioarteko proiektuetan.

- Aztergai izango ditugu itsas inguruneko giza jardueren arteko interakzioak eta erabilera-gatazkak.
- Itsas inguruneak emandako zerbitzu ekosistemikoak aztertuko dira, eta giza jardueren kostuen/irabazien balantze bat egingo da.
- Giza jarduerak identifikatzeko eta planifikatzeko prozesua erraztuko duten tresnak garatuko dira, eta arreta berezia jarriko da akuikulturan, artisau-arrantzan eta energia berriztagarrien garapenean.
- AZTIk Aquaspace proiektuan bere ardurapean duen azterketa-kasuan aplikatuko dira aipatutako garapenak.

### **Eskakizunak:**

Horretarako, eskakizun hauek beteko dituen profila behar da:

- Titulua: Itsas Zientzietako, Biologiako, Ingurumen Zientzietako, Geografiako edo kideko lizentzia.
- Espezialitatea: ahal dela, ingurumenari, itsas inguruneari edo plangintzari lotutako espezialitateak.
- Hizkuntzak: ingelesa (beharrezkoa: ingelesez ondo hitz egiten eta idazten jakitea; ahal dela, Cambrigderen Advanced maila edo antzekoren bat izatea), euskara (balioetsiko da).
- Beste batzuk: masterra. Balioetsiko da masterraren edukiak itsas plangintza espazialari lotutako alderdien trebakuntza izatea eta gai horretako master-amaierako proiektu bat egin izana.
- Balioetsiko da:
  - Geografia-informazioko sistemei buruzko ezagutzak (ArcGIS edo Quantum GIS) eta horretan esperientzia izatea.
  - Programazioa.
  - Datu-baseen kudeaketa eta administrazioa.
  - Estatistikari eta sare bayestarrei buruzko ezagutzak.
  - Azterketa soziologikoei buruzko ezagutza eta eskarmentua.
  - Itsas plangintza espazialaren alderdiekin erlazionatutako proiektu edo ekimenetan parte hartu izana edo lagundu izana.
  - Itsas plangintza espazialaren alderdiekin erlazionatutako trebakuntza-ikastaroetara, prozesu parte-hartzaileetara eta abarretara joan izana.
  - Itsas ingurumenaren funtzionamenduari buruzko ezagutza orokorrak izatea (habitata, ingurumen-inpaktua, ingurumen-arriskuak, ahultasuna, itsas inguruneko giza jarduerak, ondasun eta zerbitzu ekosistemikoak, etab.).
  - Tesia egiteko balio dezaketen itsas plangintza espazialaren arloko beste ekimen batzuen berri izatea.
- Oharrak

www.azti.es | www.alimentatec.com | www.itsasnet.com | tel.: +34 94 657 40 00 | [info@azti.es](mailto:info@azti.es)

Hautagaiak prest egon behar du eskualdeko/estatuko/nazioarteko kongresuetara/bileretara joateko, tesi hau egitean lortutako emaitzak aurkezteko.  
Tesiaren bigarren urtean, atzerriko zentro batean egonaldi bat egiteko aukera aztertuko da.